

LABURPENA

Balio-katearen analisia eta kultura-politikarako proposamenak

Kulturaren egoerari buruzko
lehenengo txostena
EAE 2015



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

LABURPENA

Balio-katearen analisia eta kultura-politikarako proposamenak

Kulturaren egoerari buruzko
lehenengo txostena
EAE 2015



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaularitzaren *Bibliotekak*
sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

ARGITARALDIA: 1.^a 2016ko urtarrila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila

INTERNET: www.euskadi.eus

ARGITARATZAILEA: Eusko Jaularitzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

DISEINUA: Canaldirecto · www.canal-directo.com



00. Aurkezpena	7
01. Kulturaren diagnostikoaren gakoak	
ICC Consultors eta Ramón Zallo	9
02. Ikuspegi eta proposamenen laburpena	
Ikertzaileak	25

00 Aurkezpena



Kulturaren Euskal Behatokiak euskal kulturaren egoerari buruzko bi urtez behingo lehen txostena egin du, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin. Behatokiaren lana aberastu nahi du, euskal errealitatearen analisi kritiko, independente eta baloratibo batekin; hartara, alderdi esanguratsuenen diagnostiko bat egin ahal izango da. Alderdi horiei lotutako ekimenak bultzatu beharko dira, bada, defizitak zuzentzeko eta potentzialtasunak garatzeko. Lehen emanaldi honek kulturak aro digitalean zer arazo dituen azaltzen du, eta balio-katea du ardatz nagusi.

Kultura-politikaren inguruko hainbat proposamen biltzen ditu, autoreek zein bere iritzia irarrikiz eginak, Kulturaren Euskal Kontseiluari bere gogoetak egiten laguntzeko baina betiere Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailari eskuak lotu gabe, horrek berak erabakiko baititu, noski, bere lehentasunak. Proposamenetan ez dira juzkatzen politika kulturalak, ez oraingoak ez lehengoak; aitzitik, abiapuntu hartzen ditu horiek, bereziki «Kultura Auzolanean 2014-2015» programan gauzatutako 20 proiektuak, txosten honetan kudeaketa estrategikorako foku berrizat jo direnekin bat baitatuz. Eztabaidarako gidalerroak dira, eta autoreak kontziente dira proposamen batzuek maila goreneko erabakiak behar dituztela, beste batzuk Jaurlearitzako beste sailen esku daudela eta beste batzuek, azkenik, bai Kulturaren Euskal Kontseilua, bai horiek abiarazi beharko

lituzkeen gobernua konbentzitu beharra dutela baldintza.

Kulturaren egoerari buruzko bi urtez behingo txostena egitearekin ekingo zaio KEBren eta EHUren lankidetzaren prozesu formalari, lana elkarrekin egiteko, lankidetzan, konpromisoz eta zorrotz. Behatokia, ICCren laguntza teknikoarekin, proiektua oro har koordinatzeaz arduratu da, eta Unibertsitatea, berriz, Ramón Zaloren zuzendaritzapean, diseinuaz eta alderdi analitikoaz. Eneko Lorentek, Miguel Angel Casadok, Kepa Sojok eta Pablo Malok, Josu Amezagak eta Ramón Zallok berak egin dituzte txosten partzialak; sarrera eta azken txosten proposamenduna Ramon Zallok egin da, eta laburpena, azkenik, guztiek sinatua da.

Kultura-eragile ugariaren iritzia bildu dira txostenean. Eragileok inkesta bati erantzun diote, eta lau lantalde txikiagotan bildu dira, analistekin iritzia trukatzeko. Behatokiak eskerrik beroenak ematen dizkie guztiei beren prestasunagatik. Horiek izan dituzte abiapuntu analistek beren gogoetak egiteko.

Laburpen hau txostena irakurtzen laguntzeko osatu da. Euskadiko kulturaren ekonomia- eta gizarte-egoera orokorrari buruzko diagnostikoaren alderdi nagusiak laburbiltzen ditu, kulturaren balio-katea ardatz hartuta. Horrez gain, analistek txosten partzialetan jaso dituzten ikuspegi eta proposamenak laburbiltzen ditu, zenbakituta.

01 Kulturaren egoerari buruzko diagnostikoaren gakoak

ICC Consultors eta Ramón Zallo




1. Eragileen ikuspegia

Eragileen aburuz, 2015eko kulturaren egoerak irudikatzen duen gogo-aldarte epela da: ez oso positiboa, ez eta oso negatiboa ere. Izan ere, 5,3ko batezbesteko nota eman diote. Inkestako kapitulu guztiak 5aren inguruan daude, politika publikoak baloratzeko galderena (4,5) izan ezik.

Batezbesteko kalifikazioek iritzi orokor bat emateko balio badute ere, gai asko biltzen dituzte; eta gaiok

halako eta halako balorazioa merezi ohi dute, bai eta, batzuetan, desadostasuna ere. Horrexegatik, itemekiko adostasun —edo desadostasun— mailaren batezbesteko aritmetikoari erreparatzeaz gainera, desbideratzea ere hartu behar da aintzat, emaitzen arteko sakabanatzearen isla baita. Mota honetako galdetegi baten interesik handiena xehetasunetan dago, jarraian ikusiko dugun bezala.

1. grafikoa
Inkestaren emaitza orokorrak, kapituluka.
Batezbesteko aritmetikoa




Sorkuntza-Ikerketa-Prestakuntza

Kalifikaziorik handienak eta, aldi berean, sakabanatzerik txikiena lortu duten galderak Euskadiko kulturaren pluraltasunari, aniztasunari, kalitateari eta garrantziari lotuta daude. Gainera, sare digitalek sorkuntzak ikusgarriago egiten dituzte, eta publikoekin harremana ere errazten dute. Gai horietan guztietan, batezbestekoa 6 punturen inguruan dago. Baloraziorik handiena duten gaien taldean, hau nabarmentzen da: sorkuntzak eta berrikuntzak gizarte-kohesioari eta bizitza publikoaren kudeaketari egiten dioten ekarpena (7,8).

Balorazio negatiboen eremuan (3 inguru), honako hauei buruzko gaiak daude: artisten baldintza ekonomikoak eta sozio-laboralak, uneko babes-egiturak, artearen hezkuntzak hezkuntza-sisteman duen egoera, kulturaren transmisioa eta gizarteak zer-nola baloratzen duen lan sortzailea. Sortzaileen nazioarteko mugikortasunak (3,3) eta sorkuntza-egituraren belaunaldi-aldaketak (4,7) ere ez dute gainditu.

2. grafikoa**Sorkuntza-ikerketa-prestakuntza kapituluaren emaitzak. Batezbesteko aritmetikoa eta desbideratzea**

- | | |
|--|---|
| <p>1. Euskal sorkuntzak proposamen eta proiektu kulturalen dibertsitatea islatzen du</p> <p>2. Euskal sorkuntza osasuntsu dago kalitateari eta garrantziari dagokienez</p> <p>3. Proposamen berritzaileek topatzen dituzte gauzatu ahal izateko eta beren publikoak bilatzeko bideak</p> <p>4. Adierazpen eta formatu sortzaileen diziplinartekotasun-maila handia da</p> <p>5. Euskal sortzaileek sare berriak erabiltzen dituzte beren publikoekin konektatzeko</p> <p>6. Doan sartzek sortzaileen ikusgarritasuna handitzen badu ere, are onuragarriagoa zaie hori bitarteko sare digitalei.</p> <p>7. Etapa analogikoaren aldean, sareek sorkuntza propioen ikusgarritasuna eta hedapena hobetu egiten dute, eta balioa gehitzen diete</p> <p>8. Sortzaile hasiberrien proiektuek eta kolektiboek beren prestakuntza-garapenerako nahiz garapen profesionalerako behar adina laguntza-eta harrera-egiturak (bekak, egoitzak, laguntza..) izaten dituzte</p> <p>9. Sortzaileen gizarte- eta lan-baldintzek beren lana errazten dute</p> | <p>10. Krisi ekonomikoak berak eta berak gizartearen eskaeretan eta laguntzetan eragin dituen ondorioek sortzaile berrien sorrera moteldu dute</p> <p>11. Sorkuntzarako eta berrikuntzarako gaitasunak zibertrebetasunekin integratzeari garrantzia ematen dio hezkuntza-sistemak, arte-hezkuntza curriculumean txertatzeko prozesuaren ildoan</p> <p>12. Hezkuntza-sistemak ikerketa artistikoa, jakintza eta kulturaren transmisioa sustatzen ditu</p> <p>13. Gure sortzaileen mugikortasuna eta nazioartean duten presentzia egokia da</p> <p>14. Sorkuntza profesionalizatuko eremuetatik bereizten diren gero eta lan sortzaile eta kooperatibo gehiago daudela atzematen da, baita partaidetza-maila handiagoko lanak ere</p> <p>15. Euskal Herriko ingurune sortzaileen belaunaldi-ordezkatzerako eta talentu berriak sartzeko baldintza egokiak daude</p> <p>16. Herritarrek lan artistiko eta sortzailearen garrantzia, eta lan horrek gizarte-bizitzako hainbat eremutan duen eragina aitortzen dute</p> <p>17. Sorkuntza eta berrikuntza kulturala oso lagungarriak dira gizarte-kohesiorako eta herritarrek bizitza publikoaren kudeaketan parte hartzeko</p> |
|--|---|



 **Batezbesteko aritmetikoa**

 **Desbideratzea**

Ekoizpena-Edizioa

Euskal ekoizpenaren eskaintza-aniztasunak eta berritze eta berrikuntzak balorazio positiboak izan dituzte; 5,7ko eta 5,6ko batezbestekoekin, hurrenez hurren. Antzeko balorazioak izan dituzte, halaber, Internetek enpresei eskaintzen dien potentzialtasunari (5,7) eta errealitate digitalaren ondorio diren negozio-eredu berrietan enpresak sortzeari (5,8) buruzko gaiek.


Euskarazko ekoizpenari buruzko gaiek kalifikazio txikiagoak lortu dituzte: adierazgarria den (5,4),

publikoak euskarazko ekoizpena behar bezala laguntzen duen (5) eta gaztelaniazko eskaintzarekiko orekatua den (4,3). Iritziak sakabanatuta daude, eta, ondorioz, desbideratzea ikusten da gai hauetan.

Sektorearen iraunkortasunari lotutako gaiek izan dituzte baloraziorik txikiak (3 eta 4 artean), besteak beste, finantzaketa lortzeko zailtasuna dela eta.

3. grafikoa**Ekoizpena-edizioa kapituluaren emaitzak. Batezbesteko aritmetikoa eta desbideratzea**

1. Kultura-eskaintzak gure kultura-nortasunaren aniztasuna islatzen du	11. Aktibo diharduten enpresa kultural eta sortzaile txiki eta ertainen kopurua kontuan hartuta, egoki iritzi zaio enpresa horiek handitzeari, dela bakarrik haziz, dela beste enpresekin bat eginez
2. Euskal Herriko kultura-eskaintzan eraberritze- eta berrikuntza-zantzuak ikus daitezke	12. Ekoizpenari eta negozioari dagokionez, gure industria kultural eta sortzailearen egoera iraunkorra da
3. Ondare-zerbitzuak (liburutegiak, artxibategiak eta museoak) kalitatezkoak dira	13. Egungo laguntza publikoen maila kontuan hartuta, Euskal Herriko ekoizpenaren barne- eta kanpo-eskaria nahikoa da hari iraunkorki eusteko
4. Euskal Herriko eskaintzako adierazpen kultural gehienetan euskarazko ekoizpen-edizioak garrantzi esanguratsua hartzen du	14. Kulturako eta sorkuntzako sektorearen egungo egiturak, laguntza instituzionalaren mailak eta eskaera-mailak aukera ematen dute EAE ekoizpen kultural eta sorkuntzakoan espezializatzeko
5. Euskarazko ekoizpen-edizioa Euskal Herriko gaztelaniazko eskaintzarekiko orekatua da	15. Kultura alorreko-enpresa eta -proiektuek beste sektore batzuetakoek baino zailagoa dute finantzaketa eskuratzea
6. Euskarazko ekoizpenak gaur egun duen laguntza publikoa egokia da	16. Sorkuntzatik profesionalizazioarako bidean genero-berdintasuna aintzat hartzen da
7. Euskal Herriko kultura-enpresak Internetek eta teknologia berriek eskaintzen dizkieten aukerak aprobetxatzen ari dira	17. Baliabide sozio-ekonomiko dinamizatzailea da kultura-ondarea, eta turismoan inpaktu esanguratsua du
8. Ikusi da Euskal Herriko mikroenpresa kultural eta sortzaileak esanguratsu sartu direla sarea erabiltzen duten negozio-eredu berrietan	
9. Euskal Herriko kultura enpresa-sarea dinamikoa da eta enpresa eta ekintzaile berriak ohiz biltzen zaizkio sareari	
10. Ikusi da belaunaldi-aldaketa gertatzen ari dela enpresa kultural eta sortzaileen kudeaketan	



● Batezbesteko aritmetikoa

● Desbideratzea

Banaketa-Hedapena-Merkaturatzea

Iritziek berresten dutenez, ohiko banaketa- eta merkaturatze-sareek zailtasunak dituzte euskal eskaintza eta erabiltzaileak konektatzeko, eta sare digitalek kultura eskuratzeko aukerak eskaintzen dituzte. Positiboki baloratzen da kalitatezko zuzeneko ikuskizunen eskaintza (6,2), baina desorekak daude lurralde historikoen arabera (6,9). Baieztapen honek adostasun-maila handiena lortu du: publikoak sortzeko estrategiak konpondu gabeko gaia dira (8,4). Adostasun-maila handia lortu dute, halaber, batetik, sustatzeak, banatzeak eta hedatzeak sortzeak eta ekoizteak beste garrantzia dutela pentsatzeak (8,3) eta, bestetik, eskuratzeko demokratizazioa eta bikaintasuna babestea orekatzeko beharrak (8).

Euskarazko eskaintza ikusarazteari eta eskatzeari helduta, uste dute baduela tokirik euskal


merkaturatze- eta erakuste-sarean (5,6), baina, ez duela beti eskaera nahikorik izaten biztanleria elebidunaren artean. Uste dute euskal kultura ez dela nahiko ikusarazten euskal Kultura-espazioan (7). Bai eta kanpoaldearekiko trukeak gero eta gehiago ez direla ere (4,4).

Bestalde, honako hauek izan dituzte balorazio txikiak: ohiko hedabideek euskal kultura sortzeko eta sustatzeko duten rola (4,1); eta telebista eta irratiko hedabide publikoek Kultura-adierazpen aniztasuna (4) eta ekoizpen independentea (3) sustatzeko duten rola.

Azkenik, aipatzekoa da genero-berdintasunari buruzko iritzi-banaketa sorkuntzatik eta ekoizpenetik hedapenera igarotzerako prozesuan (4,9ko batezbestekoa eta 2,7ko desbideratzea).

4. grafikoa**Hedapena-banaketa-merkaturatzea kapituluaren emaitzak. Batezbesteko aritmetikoa eta desbideratzea.**

1. Euskal Herriko eskaintza eta haren erabiltzaileak konektatzeko, nahikoak dira ohiko banaketa- eta merkaturatze-sareak	11. Ohiko komunikabideek kulturaren sorkuntza eta sustapena bultzatzen dute
2. Krisiak eta erabilera digital berriek merkaturatze- eta erakuste-sareen biziraupena arriskuan jartzen dute	12. Gizarte sareek ohiko komunikabideek baino gehiago bultzatzen dute kultura-sorkuntza eta -sustapena
3. Kultura zuzenean erakusteko gune publiko eta pribatuaren sarearen programazioak kalitatezko ikuskizunak izatea ahalbidetzen du	13. Irrati eta telebistako komunikabide publikoek mundu osoko eta iturri desberdinetako adierazpen kulturalen aniztasuna sustatzen dute
4. Zuzeneko kultura-eskaintzarekiko sarbideari dagokionez, lurralde historikoen arteko desorekak daude	14. Irrati eta telebistako komunikabide publikoek ekoizpen independentea sustatzen dute
5. Artxibategi-, liburutegi- eta museo-sistema ondo egituratuak eta koordinatuak dauzkagu	15. Euskal Herriko kultura ez da behar bezain ikusgarria bere eremuan (alde handiegia dago eskaintzaren eta eskaeraren artean) eta kanpoan ere, ikusgarritasun txikia du
6. Ondare-zerbitzuak –liburutegiak, artxibategiak eta museoak– jabetuta daude herritarrek teknologia berriekiko dituzten erabilera eta ohitura berriez, eta beren zerbitzuak ildo horretan egokitzen ari dira	16. Kanpoarekiko trukeak (merkataritzakoak eta merkataritza landakoak) ugartzen ari dira, batez ere, Europar Batasunarekin eta Latinoamerikarekin
7. Banaketaren eta merkaturatzearen eremuan sareko komunikazio-tresnen erabilera intentsiboa da	17. Kulturaren egungo egoeran, kultura sustatzea, banatzea eta hedatzea bezain garrantzitsua da hura sortzea eta ekoiztea
8. Sare digitalek kulturarako sarbide orokorra zabaldu egin dute, doako nahiz ordainketako modalitateetan, baita ordainketa-modu berrietan ere	18. Ez da gainditu adierazpen kultural eta artistiko guztietarako publikoak sortzeko estrategiak sustatzeko erronka
9. Euskarazko ekoizpenak eskaintza gisa badu bere lekua Euskal Herriko merkaturatze- eta erakuste-sarean	19. Laguntzak eskuratzearen demokratizazioa eta jardun bikainari laguntza ematea orekatu egin behar da
10. Euskarazko eskaintzak beti izaten du eskaera nahikoa biztanleria elebidunean	20. Aintzat hartzen da genero-berdintasuna sorkuntzatik eta ekoizpenetik banaketara eta hedapenera igarotzeko urratsean



● Batezbesteko aritmetikoa

● Desbideratzea

Ohiturak-Kontsumoa

Kultura-ohiturekin erlazionatutako gaien balorazioak 5 eta 6 artean daude, salbuespenak salbuespen. Uste dute Kultura-eskaintza eskuragarria dela (6,4), baina prezioari dagokionez iritzi desberdinak daude (5,7ko batezbestekoa eta 2,3ko desbideratzea). Dirudienek, aldea dago eskaintza-aniztasunaren eta kontsumitzen denaren artean (6); iritziak bestelakoagoak dira euskarazko eskaintza ona aurkitzeko aukerei dagokienez (5,3ko batezbestekoa eta 2,2ko desbideratzea).

Sare digitalei helduta, uste dute kultura demokratizatzen laguntzen dutela (6,4), bai eta sarean parte hartzeko jardunbideak eta *proderabilitzaileen* irudia sustatzen dituztela ere (6,1). Diote sortzaile eta ekoizleei ordaindu behar zaiela beren lanak erabiltzeagatik (6,8).


Erabiltzaileek sorkuntzan parte hartzea errazten duten galdetuta, adostasun-maila txikiagoa da (5,4).

Erakundeek jardunbide aktiboak (7,9) eta bizikidetzari ematen dieten babesa positiboki baloratu dute; adituen aburuz, kontsumoaren indibidualizazioaren eta elkarlaneko erabileren artean ematen da babes hori (7,5). Ildo horretatik, ez dute uste etxeko kontsumoak kaleko gizarte-jardunbideak higitzen dituenik (4,6), ez eta eskaintza amateurra eskuratzeko eskaintza profesionala kaltetzen dutenik ere (4,3).

Gainera, antzematen dute gizarteak ez duela kultura baloratzen ongizate material edo teknologikoarekin lotuta (2,8).

5. grafikoa**Ohiturak-kontsumoa kapituluaren emaitzak. Batezbesteko aritmetikoa eta desbideratzea**

1. Euskal Herriko kultura kontsumo maila Europako mailaren parekoa da	10. Sareek sortzaile/ekoizleei ordaindu egin beharko liekete erabiltzaileek haien lanak zuzenean edo zeharka erabiltzeagatik
2. Ondare-zerbitzuen (liburutegiak, artxibategiak eta museoak) gizarte-erabilera handitzen ari da	11. Merkatutik kanpo dagoen eskaintza amateur zabala hain erraz kontsumitu ahal izateak eskaintza profesionalari kalte egiten dio
3. Normala da eskaintzen diren proposamenen dibertsitatearen eta benetan kontsumitzen denaren arteko aldea	12. Kultura-praktika aktiboek erakundeen laguntza jaso behar dute, beren gizarte-interesagatik eta proiektu berrien haztegi direlako, ohiko sareetatik haratago
4. Oro har, kultura-eskaintza eskuragarria da	13. Gurean hain aberatsak ditugun kaleko kulturarekiko eta gizarte-praktikekiko zaletasunaren kaltean da etxeko kultura-kontsumoa
5. Kultura-eskaintzan bidezko prezioak ditugu	14. Kultura-kontsumoa indibidualizatzea, alde batetik, eta kultura partekatzea eta lankidetzazko erabilerak, bestetik, bateragarriak dira
6. Euskarazko kultura-produktuak kontsumitu nahi dituztenentzat eskaintza egokia dago	15. Gizarteak, oro har, kultura ongizate materiala edo teknologia bezainbeste balioesten du
7. Erabiltzaileek sorkuntza kulturalean parte-hartze handia izatea bultzatzen ari dira sare berriak	16. Euskal Herriko ondare kulturalaren inguruko jakintza eta balioespena nabarmen hobetu da
8. Sare digitalek kulturaren demokratizazioan laguntzen dute	
9. Sarean sortzaile-erabiltzailea eragile berriaren presentzia (erabiltzailearen eta sortzaile/ekoizlearen artean truka daitezkeen rolak ditu horrek) badela egiaztatu da, baita parte hartzeko moduko kultura-praktikena ere	



Politika publikoak


Atal honek izan ditu balorazio negatibo gehien. Are gehiago, baieztapen bakar batek baino ez du gainditu, gutxigatik gainditu ere: administrazio publikoek ondarea kontserbatzearen arloan egiten duten lana (5,1).

Gai hauek izan dute balorazio txarrena: kulturari egokitutako politika industrialen babes-falta, jabetza intelektualari buruzko arauak egileei bidezko ordaina emateko ezartzen dituzten mugak, kulturarako publiko berriak sortzea, eta kultura-merkataritza babestea.

Aldiz, balorazio positiboak hauei dagozkie: politika publikoek lehentasuna ematen diotela kulturaren alderdi ekonomikoari, eraldatzeko balio eta rolari baino (6,4); ekipamenduetan inbertitzen dutela, diru-laguntzen edo proiektuak finantzatzearen aurrean (6,3); eta enpresen sorrera (6,3). Eta, azkenik, sormen- eta teknologia-enpresak Kultura-enpresatzat jotzearen arriskua, Kultura-enpresatzat jo izan direnen beharrak aintzat ez hartzeko arriskuarekin (6).

6. grafikoa**Politika publikoen kapituluaren emaitzak. Batezbesteko aritmetikoa eta desbideratzea.**

1. Agerikoak dira lankidetzeta eta erakunde arteko eskumenen banaketa orekatua	12. Politika publikoek banaketa leihoaniztunari garrantzia ematen diote, baita sareetan ere
2. EAEko kultura-politika publikoek egoki estimulatzen dute berrikuntza sorgarria	13. Politika publikoek kulturarako publiko berriak sortzea sustatzen dute
3. Euskal administrazioek lan egokia egiten dute ondare kulturala babesteko arloan	14. Kanpo-lankidetzako politika publikoa handituz doa eta eraginkorra da
4. Euskal administrazioek lan egokia egiten dute ondare kulturalaren kontserbazioaren arloan	15. Politika publikoek kultura "kultuari" masen kulturari edo herri-kulturari baino laguntza handiagoa ematen diote
5. Krisialdi honetan, politika publikoek edizio/ekoizpenaren industria-ehuna sendotzen ari dira	16. Politika publikoak adi daude barne-kulturartekotasuna sustatzeko
6. Politika publikoek laguntza nahikoa eskaintzen diete kultura-saltokiei	17. Politika publikoek areago sustatzen dute kulturaren alderdi ekonomikoa haren balioa, hedapena eta eraldatzeko zeregina baino
7. Egungo krisialdian, politika publikoek kulturaren bideragarritasun ekonomikoa estimulatzen dute	18. Kultura-arloko politika publikoek lan gehiago egiten dute kulturaren demokratizazioaren alde (gizarteak kultura eskura izatea), eskaintzaren edo kalitatearen alde baino
8. Politika publikoek behar bezala sustatzen dute euskarazko kulturaren ekoizpena eta hedapena	19. Kultura-arloko politika publikoek kulturari eta sortzeko gaitasunari egokituta dagoen industria-politikaren laguntza izaten dute
9. Euskal administrazioek merezi duen balioa ematen diote ondare kulturalari	20. Politika publikoek kultura-ekipamenduetan inbertitzea lehenesten dute proiektuak diruz laguntzearen edo finantzatzearen kaltean
10. Politika publikoek eraldaketa digitala bultzatzen dute	21. Politika publikoek ekipamenduetan inbertitzea lehenesten dute kultura-enpresak finantzatzearen eta sustatzearen gainetik
11. Jabetza Intelektualaren egungo araudiak (Sinde-Wert Legearen ondoren) egileari bidezko ordainsaria ematea defendatzen du	22. Softwareko eta aplikazioetako enpresa berriak enpresa kultural eta sortzailatzat hartzeak, guztiz kulturalak diren enpresen premiei kasurik ez egiteko arriskua dakar
	23. Kulturako sailen edo arloen politikek genero-diskriminazio positiboa aplikatzen dute



● Batezbesteko aritmetikoa

● Desbideratzea

2. Balio-katearen egoera 2015ean

Balio-katearen egungo egoeraren irakurketa interpretatiboa eginez gero, alegia, bere mailak aztertuz gero, ondorio hauek ateratzen dira.

Lehenik eta behin, ikusi denez, krisialdian, **sorkuntza** prekarizatu egin da, dela eskaera jaitsi delako, dela babes publiko gutxiago duelako, eta, ondorioz, moteldu egin da belaunaldi arteko transmisioa eta sorkuntza-haztegi profesionalizatuak ugaritzea. Hori horrela, amateurismo boluntaristaren atzean gorde dira, aukerak etortzeko zain. Gorabehera horiek logika libre eta hausleago bat ekarri dute, baina baita sortzaileentzako prekarioago bat ere. Gorabehera horien ondorioz, halaber, gizarteak ez du hain ekitatibotzat jotzen kulturaren balioa. Kultura berehala indartzeko, galdutako denbora eta sortzaileak berreskuratu behar dira eta, horretarako, garrantzi handiagoa eman beharko zaie giza baliabideei, proiektuei eta sorkuntza-fluxuei, azpiegiturei baino.

Bigarrenik, **ekoizpena** kaltetu egin da, bai aurretik azaldutako faktoreengatik, bai aro digitaleko negozio-ereduen krisiagatik. Hori dela eta, inbertitzeko

ahalegina berritu beharra dago, baina baita ekoizpen-moduei egokitzeko modua, beste merkatu batzuekin erlazionatzeko modua —hartara, erronka berriei erantzun ahal izango diegu— eta bide horretan laguntzeko babes-modalitateak ere.

Hirugarrenik, **banaketa** ahula zen lehen, eta gaur egungo egoerak erabat ahuldu du. Zenbait kasutan, gainera, banatzeko eta saltzeko bateratzeak edo aliantzak egin behar izan dituzte (argitalpenen eta liburu-denden kasuan). Hedapen-zentroak (antzezte-, musika edo zinema-ikuskizunetako lokalak) baino ez dira ondo ibili, baina beheranzko joera argiarekin. Ezinbestekoa da sareak berreraikitzea eta publikoak sustatzeko eta sortzeko esparrua nabarmentzea; are ezinbestekoagoa, gainera, euskarazko ekoizpenerako.

Azkenik, **Kultura-ohituren** analisi kualitatiboak aukera ematen du gizarte-aldaketako faktoreak ulertzeko, bai eta Kultura-harmeneko faktoreak ere. Gainerako mailek faktore horiei egokitu beharko zaizkie ezinbestean, gizarte-kulturak ematen baitio zentzua ugal-zikloari.

3.

Euskadiko kulturaren eta Kultura- eta hedabide-industriaren AMIA

Indarrak

Gure kultura berezkoa eta berezia da, ondare berezi bat, gizarteak jarrera harkorrarekin baloratzen duena.

Hezkuntza-maila handia dugu, biztanleko Kultura-kontsumo erlatiboa, jardunbide sozial eta amateur aktiboak, eta hedabide-kontsumoaren Europako maila.

Euskararen ezagutzak eta erabilerak aurrera egin du azken 25 urteetan.

Tradizio artistiko eta sortzaile nabarmena dugu zenbait alorretan.

Euskarazko sorkuntza abantaila bat da, ez baitu lehiarik.

Nolabaiteko ekoizpen-bolumena dago liburu, musika eta telebistarako produktuen argitalpenean.

Euskadiko Kultura-industria txikia eta moldagarria da. Gainera, nahiko eguneratuta dago teknologiar dagokionez, eta gertuko merkatua ondo ezagutzen du.

Espezialitate artistikoetan hezkuntza artatzeko beharraren kontzientzia hartu da.

EITB kulturarako aktibo eragile bat da.

Bertako prentsa-sistema arrakastatsua izan da hedapenari eta irakurketari dagokienez, baina ez dago moldatuta online eredurako.

Ahuleziak

Oraindik ere gabeziak daude sistema arautuko hezkuntza-eskaintza kultural eta artistikoan.

Ez gara bereziki nabarmentzen Kultura-kontsumoetan (ez-komunikatiboak) eta desorekak daude ezagutza industrial eta praktikoaren eta kultura humanistiko edo sozialaren artean.

Ez dago sortzaile eta egiturentzako pizgarri nahikorik eta, ondorioz, askok kanpora joan behar dute lanera.

Aldea dago euskararen jakintza-mailaren eta erabileraren artean. Medioen eskaintza murrizta da, eta eskaria are murriztagoa.

Euskal Herriko Kultura-espazioa kanpoko ekoizpenek osatzen dute nagusiki, eta ez da osoki elebiduna.

Argitalpen eta fonografian, eskaintza edo ekoizpen gehiegi dago —beste toki batzuetan bezala—, tirada motzeko tituluetan oinarritzen baitira.

Euskal enpresek dimentsio-arazo bat dute, eta enpresa eragileak falta dira.

Euskararen Kultura-merkatuak mugatuak dira eta motel hazten dira. Gainera, zeharka esku hartzea behar dute berariaz.

Hedabide gehienetan ez dago ez kultura sustatzeko kuotarik, ez musika-ekoizpen propioen kuotarik.

Kultura-industrien defizitik handiena banaketa da.

EITBk rol nagusia izan beharko luke arteen eta Kultura-industrien sustapenean, eta hautapen-irizpide propioa izan beharko luke.

Zaharberritzea eta arteak baliabideen aldetik sustatzeko beharra.

Administrazio publikoek sorkuntza laguntzeko politiken koordinazioa hobetu beharko lukete.

Sarera pasatako lanean hutsuneak daude, eta ekoizpen digitalak ordaindutako merkatu urria du, batez ere, euskarazkoak.

Madriren egoitza duen ikus-entzunezko hedabide-sistema da nagusi, eta irradi eta telebistako erkidegoko sistemaren eta tokiko hedabideen arteko sinergiak egituratzeko daude, komunikazio-espazio propio baten parte izateko, sarean, bereziki.

Aukerak

Intereseko eskaintzaren eta ildo prestigiotsu eta berritzaileen aldeko apustua eginez gero, *label* bat sortu ahal izango da.

Egon badago sortzailerik, baina gizarteak, hedabideek, erakundeek eta enpresek errekonozitzea behar dute.

Hedabideek funtsezko rola dute hedapenean.

Erdarazko nahiz euskarazko ekoizpen propioa bultzatzea.

Jaialdiak, azokak, sareak eta Etxepare Institutua baliatu behar dira kultura —eta arte-sorkuntza— eta ekoizpena kanpora ateratzeko.

Adierazpen digitaleko kulturen eta *off line* eta *on line* produktu mota berrietan espezializatzeak sareetan presenteari egoteko aukera emango luke.

.eus domeinuak aukerak ireki ditu.

Kultura- eta sormen-industria sustatzeko, finantzaketa-tresnen beharra dagoela ohartu gara.

Lehentasuna ematea argitalpenen, musikaren, ikus-entzunezkoen, multimediarren, bideo-jokoen, eta abarren ekoizpen propioari, bai eta Gaia klusterrarekin sinergiak sortzeari ere.

Hedabide-egitura nabarmenak sortzea.

Erregulazio-koadroa (ikus-entzunezkoa, EITB, artxiboak, digitala) osatzea eta politikak definitzea.

2.0k aukera ematen du handi zein txikiak maila berean kokatzeko, unean unean.

Kulturari eta komunikazioari lotutako politika publikoei zentralitatea eman behar zaie, bai eta erakundeartekoei ere, eta lehentasunak eta garrantziak (edukitzaileak/edukiak, sorkuntza/ekoizpena/hedapena) berriro pentsatzea.

Mehatxuak

Liburuak irakurtzeko joera mugatua da, eta telebista tematikoak eta internet bidezkoak imajinario, identitate eta kezka kolektiboak zatikatzeko arriskua dago.

Sozializatzailea ez den ordainpeko kultura bat ezartzea, bai eta akulturazioa ere, gehiago sustatzen diren kulturak abiapuntu hartuta.

Belaunaldi arteko eten digitaleko espazioak daude.

Euskal Herriko ikus-entzuleak dituzten hedabideetako telebista-programazio jeneralistaren kalitateak txarrera egin du.

Internetek ziurgabetasun handiak dakarzkie kultura txikiei, eta diglosia digitaleko arriskua gutxiengoan hizkuntzei.

Nazioz haraindiko eduki gehiegi pilatzen da oraindik ere nazioarteko merkatuan nahiz barnekoan, eta, orain, zati handi batean, bilatzaileen eta plataformen banaketa-rolaren pean.

Asko sustatzen diren kanpoko produktu gutxi batzuek baino ez dituzte salmenta handiak.

Kultura-enpresak Madrilan kokatzen dira gero eta sarriagotan.

Txikizkarien sareak desagertzeko joera dute.

Irrati eta telebistako zerbitzu publiko jeneralistentzako arriskuak.

Tokiko LTDA baztertuta gelditu da, espektrorik gabeko, estatu-mailako operadore pribatuen onurarako.

Gidek eta bilatzaileek asko sustatzen diren ekoizpenei ematen diete lehentasuna dagoeneko.

02 Ikuspegi eta proposamenen laburpena

Eneko Lorente, Miguel Ángel Casado,
Kepa Sojo, Pablo Malo, Josu Amezaga
eta Ramón Zallo



1.

Aplikatutako kontzeptu-esparrua

- a) Kultura —irizpide hertsiki ekonomikoetatik haratago— gizarteratzea errazteko funtsezko tresna bat da, eta sortzeko eta trukatzeko espazioak hedatzen eta sustatzen ditu. Gaur egun, doktrina-printzipio berriak sortu dira, Kultura- eta komunikazio-politikari galdegiten diotenak, eta hau dute ardatz: gizarateak «**kultura partekatua**» eskatzen du, elkarri eragiteko eta lankidetzan aritzeko. Kultura kolektiboaren titularra gizaratea denez, aldaketa emango da baldin eta gizarateak protagonismoa aldarrikatzen badu, bere ekimenez egiteko tresna autonomoak dituelako —lehen sektoreko enpresei eta inbertitzaileei gordetako askotariko kalitateekin— eta pentsatzen duelako kultura prokomun bat dela, alegia, denen gozamenerako jabetza kolektibo bat.
- b) Aldaketek **aktore berriak** ekarriko dituzte. Gizarte aktiboak protagonismoa irabaziko du eta Kultura-demokraziaren paradigma bukatugabea berreguneratu; hala, *top-down* politikak (goitik beherakoak) bultzada horizontalekin eta *bottom-up* (behetik gorakoak) ekimenekin ordezkatu dira. Gizarte-oinarriak politika publikoak eskatzen edo aldarrikatzen dizkie administrazioei, eta, gainera, teknologia— eta harreman— gaitasuna du bere kabuz ekimenak abiarazteko, bai eta administrazio-neurriak eskatzeko ere.
- c) **Kultura-amateurra** herritarren eta parte hartzearen oinarria da, eta beharrezkoa da mugitzeko, lankidetzan aritzeko eta komunitate eta lurraldearen kohesioan laguntzeko gai izango den gizarate-egitura bat sortzeko. Gainera, sortzaile profesionalizatuen sorleku ere izan daiteke. Horretatik bakarrik bizitzea gero eta zailagoa denez, arreta berezia jarri behar zaio profesionalizaziorako jauziari (autoenplegu behartuko, azpienpleguko edo behin-behinekotasun prekarioko egoerak gainditu behar dira).
- d) Kulturarako eskubidea zaintzeko, Kultura- eta sormen-industrien bultzada hezkuntza eta gizarate-jardunbideak ardatz dituzten oinarriko politikekin **koordinatu** behar dira.
- e) Gizarte moderno eta ireki batek ezin du Kultura-sorkuntza eta -ekoizpen profesionala alde batera utzi, **mundu globaleko aniztasuna** ere jokoan baitago. Pluraltasunaren ikuspegitik, eragileen, baldintzen, edukien, merkatuko pisuaren eta abarren aniztasuna sustatu behar da, eta, horretarako, garai berriei egokitutako araubideak eta estimuluak behar dira. Euskal ekonomian bidean dauden berrikuntza orokorreko prozesuetan, Kultura-dimentsioa nabarmendu behar da, dela lurraldeari begira, dela nazioarteko proiektiorako.
- f) Kultura sektoretzat jotzen da eskualde-garapenerako estrategietan; baina, hortik haratago, bere **zeharkako rola** baloratzen da, beste aktibo politiko, ekonomiko nahiz sozial batzuekin lotuta. Ezagutzaren gizaratean, kultura eta komunikazioaren ideia oso zabala da. Nitxo izatetik sektore izatera igaro behar du, eta azken horretatik zeharkako esparrura, gizarate-sistema osoa

aintzat hartuta. Hauek hartzen ditu barne: autoerregulatu nahi duten aktibo kolektiboak edo *commonak*, kultura herrikoia, Kultura-ekoizpena eta -hedapena, telekomunikazioak, jakintza eta bizi-kalitatea. Garrantzitsua dirudi Kultura-sailak gobernuko gainerako arloekin koordinatzea —hirigintza, hezkuntza, industria edo berrikuntza—, erakundeetako Kultura-sailak ez baitira gai izan kulturaren zeharkako dimentsioak kudeatzeko; izan ere, historikoki eta zuzkidura urriekin, arlo gutxi batzuetan espezializatu dira.

g) Gurean, **euskarazko sorkuntza** gizartean sustatzea eta ikusaraztea nabarmendu behar da, eta hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-espazioak indartu behar dira, beren gizarte-oinarria handitzeko eta publiko berriak sortzeko.

h) Elkarreragin berriak sortu badira ere, zerbitzu publikoak (irradi eta telebista, Kulturklik eta tankerako atariak, museoak, artxiiboak, liburutegiak...) funtsezkoak dira oraindik ere, bai eta inbertsio publikoak ere, sozializazioaren berme orokor baitira.

i) Kultura ezagutzaren gizartearen eremu estrategikotzat hartzen bada, **gutxiengoaren kultura** batek, halabeharrez, bere maila guztiak indartu behar ditu, baldin eta bere burua ikusarazi nahi badu. Gizarteak jokoan du, batetik, bere Kultura-garapena eta, bestetik, gizarte aurreratua delako baieztapenaren alderdi sinbolikoa. Kulturak, baliabide propioak eta turismoaren bidez inposaturiko baliabideak sortzen dituen jarduera ekonomikoaz gain, itzulera du irudian, herrialde osoa eta bere jarduera ekonomikoa babesten duena; baina, batik bat, giza baliabideak kualifikatzen ditu, gizarte postindustrialaren eskakizunetara egokitzeko.

2. Ardatz egituratzaileak

Bost izango dira ardatz egituratzaileak; hain zuzen ere, kultura estrategikoki garatzeko eta balio-katetik eta txosten honen gogoetetatik eratorritako fronte ugariak antolatzeko.

— KULTURA-BIZITASUNAK sorkuntza eta ekoizpen propioa, sustapena eta Kultura-berrikuntza nabarmentzen ditu.

—IRAUNKORTASUNA, kultura belaunaldi belaunaldi transmititzeko, eta baliabide material eta immaterial eta giza baliabide nahikoak ekoeraginkortasunez eta orekaz erabiltzeko koherentzia gisa.

—NORTASUNA eta ANIZTASUNA, bi alderdiekin: barrura, eraikitzen ari den nortasuna eta kultura aintzat hartuta, eta, kanpora, truke irekiari erantzunez.

—IRISGARRITASUNAK gizartea nabarmentzen du, eta gizartearen eta kulturaren arteko harremana, Kultura-ondare, -ekipamendu, -jardunbide eta -erabileren esparruan aukera- eta gaitasun-berdintasuna bilatzeko.

—GOBERNANTZA ERAGINKORRA eta PARTE-HARTZE AUTONOMOA elkarren osagarri diren bi alderdi dira. Alde batetik, bere egitura egokitu behar duen administrazioa, bere erabakiak herritarren parte-hartzeaz hartuko dituena. Bestetik, gizartea autokudeatzeko prozesuak errespetatu ez ezik, are bultzatzea ere.

3. Proposamenak, ardatzaren arabera

a) Kultura-bizitasuna

1. Ekonomikoki devaluatu bada ere, gizarte digitalean sortzeko eta ekoizteko ordua da; izan ere, edukiak eta horiek sortu edo interpretatzeko gaitasuna da baliabide nagusia. Hortaz, **dimentsio anitzeko** eta epe luzeko **estrategia** bat behar da lurraldearen giza eta kultura kapitalaren inguruan. Horrek politika publikoen erakunde-tresna guztiak eskatzen ditu, Kultura-politikaren tresna tradizionalaz haratago. Eta, horien artean, hezkuntza- industria- eta finantzaketa-politikaren berezkoak.

Erakunde arteko Kultura-politika bat planteatu behar da. Horrek industria, hezkuntza eta hedabideak barne hartu behar ditu, eta **sektorearen** egitura-arazoei erantzuteko gai izan behar du, bai eta **Kultura-sorkuntzari** balioa eman ere; hartara, epe luzerako proiektuek eragina izango dute gizartean, artean eta ekonomikoan —eta ordena horretan—.

2. **Maila anitzeko** Kultura-politikak gomendagarriak dira, aintzat hartuta elkarteen Kultura-egitura aberatsa, jardunbide artistiko komunitarioak, sorkuntza-fabrikak, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeak eta ikusleen merkatutik haratago doazen ekimenak. Horiek sinergiak sortzen dituzte beren artean, eta hedabideetan eta sarean daude, hainbat motatako publikoak elkartzea sustatzeko modu gisa.

3. Arte- eta sorkuntza-esperientzia zeharkakotu behar da, eskola-ikasleak sorkuntzari eta Kultura-transmisioari buruz sentsibilizatzen laguntzeko. Ekoizpen eta kultura propioari balioa eman behar zaio; izan ere, haur eta nerabe direnetik estimulu ugari dituzte sarean —musika, irudiak...—, eta familiak eta hezkuntza-sistema ez dira horietara iristen. Gainera, **hezkuntza-sistemaren** mailen koherentzia aztertu behar da: arteak eta eskulanak eskolan; nahitaezko arte- eta Kultura-irakaskuntza curriculumetan; batxilergo artistiko guztiak garatzea; dagoeneko nahiko garatuta dagoen goi-mailako arte-ikasketen eskaintza osatzea (arte ederrak,

eszenikoak, musikalak, ikus-entzunezkoak, diseinuak...); graduondokoen eta ikaskuntza etengabe eta amateurren nahikotasuna. Epe luzeko zereginak, epe motzeko ekintzak dituztenak.

4. **Hurbiltasunezko** eta lurralde- eta toki-orekako **Kultura-politikaren** ereduak sortzea gomendatzen da. Ereduotan, gainera, herritarrek ez dute Kultura-eskaintzaren **erabiltzaile** soil izan behar; aitzitik, modu batera edo bestera parte hartzen duten Kultura-jardueren eta -adierazpenen prosumitzaile, ekoizle, kontsumitzaile, dinamizatzaile eta kudeatzaile izan behar dute. Horretarako lagungarria izan daiteke Kultura-politikak hezkuntza-politikekin lotzea, bai eta oinarri- eta arte-ikerketarekin ere, ezagutza eta diskurtsoa sortzeko.

5. Gurean, **somen-lantegiak** dinamizatu beharra dugu. Dirudienez, moteldu egin da proiektu berrien garapena, eta, hein batean, artista ospetsuen kargurako eta sareetan konektatutako taldeen esperimendu-laboregien kargurako hezkuntza-esperientziek edo tailerrek ordeztu dituzte. Halako ekimenak interesgarriak lirateke eskualde-mailan, baina horiek abiarazteko —eraikinak eta programak egokitzea—, lehendabizi horiek dinamizatuko dituzten eragile aktiboak hauteman behar dira.

6. Instalazio gehigarri bat, kultur-etxe jeneralisten eta sorkuntza-fabriken arteko zerbait, izan litezke **Kultura-baliabideen zentroak** (autonomoak edo kultur-etxeetan kokatuta), esperimendazio sortzailerako jarrera hobea duten gazteekin harremanetan egoteko. Halakoak eskualdeetan ezarri gero, haztegi zoragarri bilaka daitezke, dela ikusizko arteak sortzeko zentro espezializatu edo balioaniztun gisa, dela dantza eta arte eszenikoak sortzeko espazio gisa. Horren bidez, hedapenerako pentsatutako azpiegituren politika tradizionala —baliabide esanguratsuak ditu pilatuta— Kultura- eta arte-jardunerako pentsatutako ekipamenduen logikarekin **osatuko** litzateke, edukiak nagusitu

aurretik, hori baita txosten honek nabarmentzen duen gontza nagusia.

7. Sektoreak etorkizuna izango du baldin eta **digitalizatzen** bada, eta, horretarako, balio ekonomiko handia izango duen eta erakundeen laguntza beharko duen birmoldaketa eskatzen du. Laguntza-sistemak aspaldi hasi ziren arxibo, argitalpen, musika, ikus-entzunezko eta abarren euskarrien digitalizaziora egokitzen, eta arte-formatu eta -adierazpenen nahasketa aintzat hartzen, sorkuntza- eta erabilera-prozesuen aldaketak jakinaraziz.

Testuinguru balioaniztun honetan, **erakundeek** zibermediak; hedapena; *on line* trukeak; sorkuntza digitala (sarerako eta eduki elkarreragileena); plurimedia bokazioa duten enpresen balio-kate osoko edukien bateratasuna; formatu, euskarri, plataforma edo kanal anitzeko proiektu eta edukiak (mugikorretarako jokoak, bideo-jokoak eta aplikazioak barne) **lagundu** behar dituzte. Koordinazio-atari federatu bat edo hainbat izateko aukera aztertu behar da. Atari horiek harremanetan jarriko lituzkete ekimen pribatuak eta sozialak, eta Kulturklik agendaren funtzio ezin baliotsuagoaren osagarri izango litzateke. Era berean, *.eus* domeinua sustatu beharra dago.

Baina, laguntza horretatik kanpo, enpresek ere ahaleginak egin behar dituzte sarean egoteko eta beren lanak sarera eramateko, bai eta beren logikak eta tresnak publikoetara hurbiltzeko erabiltzeko ere, ahalegina antzua izan ez dadin.

8. **Sortzaile** profesional eta amateurren **mapa etengabe eguneratuko** balitz —borondatezko mapa bat izango litzateke, eta publikoaren eskura egongo litzateke, pribatutasun-eskubideei eta datuak babesteko eskubideei kalterik egin gabe— espazio birtualak eta aurrez aurrekoak behar dituzten erabiltzaileen eta sortzaileen funtzioak aldatzea erraztuko luke.

9. Hainbat ezaugarri dituzten **elkarte** profesional eta sektorial ugari daude, baina sektore ezberdinen arteko eta Kultura-arloaren beraren eta beste batzuen (hezkuntza, industria, komunikazioa, sustapen ekonomikoa, osasuna...) arteko **lankidetzako** eta elkarlaneko espazioen falta sumatzen da.

10. **Bertsolaritzak** arrakasta du sormenaren esparruan eta gizartean; hori dela eta, Kultura-azpisektoretzat jo beharko litzakete Kulturaren Euskal Behatokiak arte eszenikoei buruz egiten dituen azterlanetan. Horretarako, jarduera horren jarraipena egin beharko litzakete (jarduerak, tipologia, asistentzia, hezkuntza-sisteman duen presentzia, eta abar), bai eta aldagai sozioekonomikoak aztertu ere. Sozializatzeko moduaren aurrekaria ezartzen du beste Kultura-adierazpen eta -jardunbide batzuetarako.

11. **Nazioartekotzeak** hiru birtualitate ditu: Euskadiko kultura bera garatzea, ekoizpen sinesgarriarekin, bokazio unibertsala izanda; horretarako, Kultura- eta komunikazio-sektoreko euskal espezializazioa bermatzea, ukiezinen arteko lehenasunezko esparru gisa, I+G+b-rekin batera; eta hori elikatuko duen sektore ekonomiko bat sortzea.

Euskal administrazioaren kanpoko misioek —Etxepare Institutua, ordekaritzak...— rol garrantzitsua dute Euskal Herriko kultura historikoaren zein biziaren enbaxadore kultural eta ekonomiko gisa, hari ikusgarritasuna ematen. Baina euskal etxeak —boluntariorizan oinarritzen dira—, zehazki, plataforma ezin baliotsuagoak dira kulturarako, euskararako eta mundu zabalean egoteko. Gainera, kokapen pribilegiatua dute kultura euskal etxeak dauden tokietan sustatzeko, eta interesgarria litzateke Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak lokalen antolamendua, batik bat berrienena, eta horiek zer-nola indartu aztertzea.

Gainera, EBko Kultura-eragileen arteko lankidetzaz-ildoak eta horien sareetan egoteko aukerak aztertu behar dira, eta Creative Europe 2014-2020 programaren nazioarteko laguntzak baliatu —euskal enpresak ez dira laguntzok asko erabiltzen ari—. Egia da ekialdeko herrialdeetako proiektuak gehiago laguntzen direla —ebaluazioetan, hasierako puntuazioa dute—, eta eskura daitezkeen laguntzak ez direla lehengoak, zinematografia horiekin egiten diren koprodukzioak izan ezik.

Horren harira, Tabakalera, Bilbao Arte eta beste batzuk arteentzako laguntza-puntu finkoak dira. Gainera, atzerriko publikoak Bilboko Guggenheim Museora —bai eta Bilboko Arte Ederren Museora eta, beste neurri batean, Artium edo San Telmo museoetara ere— hurbiltzen dira eta horri esker artearen mapan kokatzen dituzte euskal erreferentziok.

b) Iraunkortasuna

12. **Sortzaile eta artisten ordainsari-, lan- eta gizarte-baldintzak** hobetzea ekitate-irizpide bat da, eta, gainera, belaunaldi-erreleboa, euskarazko ekoizpena eta kultura arteko elkarrizketa errazten ditu. Laguntzei, enkarguei, bekei, fiskalitateari, zerbitzuei eta beste gai batzuei buruzko gizarte-elkarrizketa behar dugu Euskadin, jakinda alderdi esanguratsu batzuk, tartean, gizarte-segurantza, Estatuaren esku daudela gaur egun.
13. Industria-egitura ahuldu egin da krisi-garaian, enpresei, enpleguari, proiektu berriak abiarazteari eta sortzaile berriak agertzeari dagokienez; sortzaileengan oinarritu behar litzakete kultura hurrengo urteetan. Enpresa finkatuei ematen zaizkien laguntzak osatzeko, **sortzaile gazte eta Kultura-enpresa berriak sartzea** sustatuko duten laguntzak ere eman behar dira. Jakintzaren gizartearen, sorkuntzaren edo berrikuntzaren aldeko apustuak kultura ere izan behar du ondoz ondo.
14. Amateurrak ez den ekoizpenaren eta banaketaren kasuan, kapital konprometitua behar da ekoizpen-enpresetan edo programazio eszenikoa, ikusizkoa edo musikala duten aretoetan, Kultura-zikloa erreproduzitzeko ekoizpen-egitura nahikoa bermatzeko. Azken urteetan, establezimenduen kopuruak behera egin du eta hori eragozpen handia da. Aurre egin beharko zaio, bada, alde batetik, enpresa berriekin —*start-up* konpainiak baliagarriak izan daitezke, baldin eta inguru berrira egokituta sortzen badira— eta, beste aldetik, egungo enpresetako batzuk bategiteko prozesuen bidez, muskulua eta etorkizuna lortzeko. Bi fenomenook liburu-denden esparruan ematen dira, baina alderdi erabat produktiboan ezartzetik urruti daude. **Baliabideak eta kapitalak partekatzeak** berriazko estimuluak oso baliagarriak eta bereziki interesgarriak izan daitezke euskarazko zinemarako eta argitalpen- eta musika-ekoizpenerako. Horrek, bada, abantaila bat du, bokaziozkoa dela; baina baita desabantaila bat ere, hots, merkatu-nitxo oso mugatu bat osatzen duela.
15. Sail ekonomikoak konbentzitu behar ditugu, kulturaren aldeko apustua ere egin dezaten. **Sailarteko koordinazio-organoak** behar dira
- gobernuan, foru-aldundietan eta udal handietan. Horien baitan, kulturaren espezializatutako arloek (sailek, departamentuek, zinegotzigoek) beren dimentsio kualitatiboena balioztatuko lukete eta gainerako sailak inplikatzeko lagunduko lukete.
16. Sormena bultzatzeari mesede egingo lioke **erakunde-adierazpen edo -konpromiso** batek. Horrek, bada, apustu hirukoitza egingo luke: lehenik, oinarrituko kultura aktibo baten alde; bigarrenik, horietan ekipamendu eta programazio nahikoak egotearen alde; eta, hirugarrenik, Kultura- eta sormen-industriaren alde —ardatz estrategiko izango lirateke, egungo azpisektore ekonomikoei gehituta—. Ondo egokitzen da dela euskal gizartearen eta tankerako gizarte aurreratuen ezagutza-kapital kolektibora, dela atzerapen historikoak pairatu zituen gutxiengoaren kulturara, eta, gaur egun, aurrerapauso azkarrak eman behar ditu, baldin eta eguneratu nahi badu eta bere burua ikusarazi nahi badu. Beharra bertute bilakatu beharra dauka, eta horretarako bitartekoak izan ditzake, nahi izanez gero eta ahaleginduz gero, estatudun nazioen ekoizpen-baliabide guztiak ez baditu ere.
17. **Industria- eta berrikuntza-politikak** sektore honetan inplikatu behar du, parametro bikoitzetik: kultura sustatzea, ezagutzaren gizartearen eremu esanguratsu gisa; eta bideragarritasun ekonomikoa bilatzen duen ekonomia- eta Kultura-egitura bat eraikitzea, ekonomia ireki bateko espezializazio-eremu gisa. Lan honetarako inkestari erantzun dioten kulturaren euskal ordezkariak bermatzen dutenez, sektore hau bideragarria da uneko giza baliabideei eta baliabide materialei dagokienez, baina, uste dutenez, politikariak gehiago inplikatu behar lukete, baliabide ekonomiko eta finantzarioak izateko.
- Kultura-enpresak mikro-ETEak dira oro har eta autonomo ugari dituzte; hori dela eta, zaila da proiektu lehiakorrei heltzea eta indarreko industria-laguntzen deialdietara jotzea. Horiek berrikusi beharra dago, argi eta garbi, kulturaren mundua ez dadin finantza-bideetatik at gelditu, alegia, ez dadin soilik proiektuei emandako diru-laguntza lehiakorretan oinarritu. Sektorearen berezitasunetan espezializatutako teknikariak egoten hastea berri ona da.

18. Nolanahi ere, kultura-proiektuak **finantzatzek** arriskuak dakartzanez, garrantzitsua da Sailburuordetzak elkarren bermerako sozietateak edo banku solidarioak abalen bidez engaiatzeko bideak aztertzea. Ondasun ukiezinak baloratzea kontu lausoa izanagatik, badira halakoak (ibilbidea, merkatuko kokapena, lan-egitura, harreman-gaitasuna, aurreko produktuen arrakasta) baliatzen dituzten enpresak aztertzeko metodologiak, bai eta beren sormena aktibo moduan baloratzekoak ere (talentua, preskripzioa, populartasuna, berrikuntza, formatua edo euskarria), inbertitzaileei eta banku-sistemari konfiantza emateko. Dena dela, bada oraindik arrisku-gune bat, finantziario publikoak kontu handiz zeharka lezakeena.
19. Horren ildotik, **Kultura- eta sormen-industrien kluster** bat irekitzeko aukera dago; kluster hori, bada, ikus-entzunezkoaren azpisektore-klusterra (Eiken) baino haratago iritsiko litzateke. Komenigarriak lirateke sektore arteko topaketak, erronkak eta kontu digitalari batera heltzeko moduak zehazteko, bai eta kulturaren adar bakoitzean ere.
20. Interesgarria litzateke Kultura- eta sormen-enpresak **laguntzeko berariazko programa** bat, finantzaziora bideratutakoa, hainbat mekanismo (arrisku-kapitala, partaidetza-kredituak, *seed capital*, ekonomia-intereseko taldeak eta *business angels*), proiektuen eta kudeaketako aholkularitza eta ekintzailtza —SPRIren enpresa- eta berrikuntza-zentroekin lankidetzan— izango litzakeena. Hala, enpresa-sehaskei eta -haztegiari emandako azpiegiturek tokia utziko liekete Kultura- eta sormen-enpresei, eta beren beharretara egokituko lirateke.
21. Teknologia berriek berrasmatzera behartzen dute, eta alternatibak eskaintzera, dela banatzekoak, dela publiko berriak erakarri eta fidelizatzeak. Ildo amateurrek tokiko babes handi eta orokorra behar dute, eta komunitate birtualen bitartez ezagutarazten dira. Ildo profesionalek, aldiz, **programazio-, merkaturatze- eta hedatze-egiturak** behar dituzte, sare konbentzionalak Internetek eskaintzen dituen aukerekin konbinatzeko; hartara, beren ekoizpenei nabaritasuna emateko. EAEn, laguntza garrantzitsuak eman zaizkie sorkuntzari eta ekoizpenari, baina sustapenari eta banaketari —alegia, lanek beren ugal-zikloa amai dezaten— emandakoak ez dira nahikoak izan.
22. **Banaketaren eta hedapenaren** eremuan, hona hemen aztertu beharreko bideetako batzuk: lanak sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzak; *start up* merkaturatzaileak sortzeko industria-politika; arte eszenikoen eta kontzertuen tokiko sareen lankidetzan sakontzea; bira koordinatuak; ikusizko arteen programazioa Kultur-etxeetan eta beste espazio batzuetan; banaketa-kateak —dela establezimendu espezializatuak, dela online-banatzailak— finantza aldetik indartzea; elkarri laguntzeko harreman pribilegiatuak penintsulako beste lurralde batzuetako liburuen, disko-etxeen edo filmen banatzaileekin; euskal ikus-entzunezkoen plataforma baten aukera aztertzea; gurekin kultura-elementuak partekatzen dituzten gertuko inguruekiko —esaterako, Nafarroa eta Iparraldea— harremanetan sakontzea. Industria-tresnak (haztegiak, aholkularitza egokitua, klusterra, *start up*ak...) kultura-banaketaren berezitasunera egokitu behar dira, bai eta dagoeneko probatutako finantza-tresnak ere (elkarren bermerako sozietateak, hitzarmenak, finantzaketa-ildo zorrotz baina oparoak).
- Erronka bat dago: bitartekaritzaren profesional seniorrenak eta beren sustapen-, harreman- eta salmenta-ekintzak egokitzea; hori horrela, etengabe berritzeko beharra dago.
23. Horren harira, interesgarria izan liteke **ikus-entzunezkoak finantzatzeko** ildo birjartzea (aurrerakin itzulgarriak edo interes-tasa txikiko maileguen aurrerakinak, kontratuak finantzatzeko maileguak), 2007tik orain dela gutxi arte izan dugunaren antzekoa, arrazoizko funtsarekin, betekizun zorrotzak betetzen dituzten finantzaketa-eskaeren esperientziaren arabera.
- Kultura-eta sormen-industrien **beste esparru batzuetarako** ere pentsa daiteke antzeko biderik; betiere, itzuli beharreko finantzaketa-funts gisa ulertuta, eta, beraz, azterketa zorrotza eginda, kaudimena berrikuntza eta arriskuarekin orekatzeko.

24. Galdera hau egin geniezaioke gure buruari: ez al da ordua Kultura-politika oso bat definitu ahal izateko behar beste konstituzio- eta estatutu-kompetentzia izateko? Zinemaren kasuan zehazki, euskal legedia osagarria da, baina ikus-entzunezkoen eskaintza Madrilen eta Bartzelonan pilatzen denez, **ikus-entzunezkoaren kompetentzia osoa** eskatzea pentsatu beharko genuke; hartara, estatuari eman beharreko kupoa murriztuko litzateke, gain hartutako gaia izango litzatekeelako.
25. Kultura-klubaren proba bat egin da. Abonuen bitartez, programari atxikitako zerbitzu-eskaintzaileek prezio txikiak jartzea zuen helburu. Baina, eskaintza sustatzeko bide horrek ez du funtzionatu. Oraingoz ez dago aurrerakin esanguratsua egiteko prest dauden eskaintzaileen eta kontsumitzaileen masa kritikorik, baina ez da inola ere baztertu behar etorkizunari begira. Bestalde, dagoeneko probatu diren **Kultura-bonuen** modalitateek erakutsi dute baldin eta finkatuko badira helburu hirukoitza bete behar dutela: lehenik, eskaintza eta horren aniztasuna bultzatzea; bigarrenik, eskaintza propioa etengabe sustatzea, batez ere euskarazkoa; eta hirugarrenik, nazioz haraindikoak ez diren merkataritza-establezimenduetarako plusen bat (esate baterako, eskaintzaren aniztasunaren arabera puntuatzea).
26. Kultura-jardueretarako % 21eko BEZak kaltea eragin du, baina zerga hori ez da euskal administrazioen mendekoa, estatuaren eskumenekoa baita. % 4ra jaistea (liburuaren BEZ) komenigarria da, bistan dago. Dena dela, badugu beste **zerga-neurri** batzuen gaineko eskumenik: aldeko zerga-tratamendua ematea sozietateen zergan kultura ekoizteko edo banatzeko edozer jardueretarako (musika, ikuskizunak, askotariko arteak...). Halaber, zenbait aldundi «kultura- eta sormen-industria» kontzeptura hurbildu direnez, koherentzia hutsez bada ere aldeko trataera hori industria horietara guztietara hedatu behar litzateke, eta, euskarazko ekoizpenen kasuan, are trataera aldekoagoarekin. Horrez gain, zinemaren Interes Ekonomikoko Taldearen figurak (IET) asko eman dezake foru-arauetan, betiere, helburua kultura propioa eta zerga-egoitza gurean duten zergapekoak direla argi izanik, eta zerga-aholkularien artean zabaltzen bada. Halaber, gogoan hartu behar dugu Nafarroako Mezenasgoari buruzko Legea, mikromezenasgoari eta sortzaileen zerrendari dagokionez, eta ondo hautatu behar dugu zein izango diren hartzaileak eta onuradunak, bai eta arrazoizko kenkariak xedatu ere.
27. **Euskararen Kultura-merkatuak** mugatuak dira eta motel hazten dira. Gainera, zeharka esku hartzea behar dute berariaz. Babesten jarraitu behar dugu, plus bat aplikatuta euskarazko kultura eta hedabideetarako laguntzen aginduetan. Asko dago egiteko oraindik, dela kalitate erkagarriari dagokionez —abiapuntua—, dela sustatzeko mekanismoei dagokienez. Mekanismook, bada, barne-ikusarazpena erraztu behar dute, batik bat belaunaldi berrien artean, eta kanpo-ikusarazpena, partekatua izan behar duena ezinbestean —esate baterako, Kimuaken antzeko ekimen batekin, baina film luzeak eta beste Kultura-adierazpen batzuk xede direla—, bai eta nolabaiteko banaketa eta esportazio egitura partekatua ere. Nolanahi ere, konplexua da eta Kultura-kluster hipotetiko batean aztertu beharko litzateke.
28. Kultura-egiturari eusteko, ezinbestekoa da hezkuntzak kultura gizarteratzea eta **kulturarako publikoak sortzea**, batik bat euskaraz, hezkuntza-sistema eta hedabide-sistema erdigune izanik —konpromisoak EITBren kontratu edo programan, eta hitzarmenak sistema pribatuarekin—. Ezinbestekoa da, halaber, sortzaileek eta enpresek sustapena egitea; horien laguntza-eskaeretan, bada, orain daukana baino garrantzi handiagoa izan behar du sustapenari eta eskaera sortzeari buruzko kapituluak.

c) Nortasuna eta Aniztasuna

29. Sorkuntza elebiduna bermatuta dago; **euskarazko Kultura-eskaera**, ordea, ez. Aldea dago euskarazko kalitatezko sorkuntza eta eskaintza interesgarriaren eta publikoaren artean, eta ez gara iritsi Kultura-iraunkortasunaren zirkulu bertuosoren atalera. Sekuentzia-ordena hau aintzat hartu behar da: biztanleriak euskara ezagutzea; gaitasun handia hizkuntza-baliabideetan; jardun balioaniztuna; ohiko erabilera eta ohitura; eremu espezializatuetako jakintza. Lehen sekuentzian, lorpenak esanguratsuak dira, baina horiek gutxituz doaz gainerakoetan aurrera

egin ahala; azkenik, jakintza anitz eta elebidunetan gai diren publikoak gutxiengo dira.

Helburua kalitatea eta eskumena ardatz dituen babes publikoko sistema bat antolatzea da, bai, baina, batik bat **euskarazko eskaintza gizartean sustatzea** ardatz duena: bikoizketak, erakustaldiak asteburuetan, musika-kuotak irratietan...

Neurriak har daitezke, batetik, gaztelaniazko hedabide publikoetan euskarazko Kultura-ekoizpenaren presentzia hobetzeko, kanal dual edo anitzak ere baliatuta; bestetik, jatorrizko bertsioko zinema eta euskarazko azpitoluak sustatzekoak telebistan nahiz zinema-aretoetan, proiektio eta emisio dualeko teknologiek probak eginez; eta azkenik, euskarazko eskaintza gaztelaniara eta beste hizkuntza batzuetara itzultzea bultzatzeko.

30. Sortzeko, ikusarazteko eta kudeatzeko arloetan **emakumeen** berdintasuna berariaz bultzatu beharra dago. Berdintasun formaleko ikuspuntuak ez diete behar beste erantzuten hasierako ezberdintasunei. Horiek horrela, egoera arintzeko, zentzuzkoa dirudi diru-laguntzen deialdietan puntuazio-plus bat izatea, egoerak hala erakusten duen bitartean behintzat.

Nolanahi ere, gaia sakonagoa da eta zenbait neurri eskatzen ditu, dela ikusarazteko (estatistiketan; komunikazioan eta hizkuntzan estereotipo diskriminatzaileak sortzean; gizarte eta administrazioko maila guztietako zeharkako tratamenduan...), dela hezkuntzan sentsibilizatzeko, dela rolak (zaintzak...) aldatzeko, dela lan-merkatu diskriminatzailea aldatzeko, dela sustatzeko (batzordekideak, dirulaguntzak...). Horiek guztiak emakumeen balio-aldaketara, norbere burua estimatzera, autonomiara eta ahalduzko pertsonal eta kolektibora bideratuta, emakume guztientzat oro har, eta bereziki kultura sortzeko eta kudeatzeko gaitasuna dutenentzat.

Zenbait neurri iradokitzen dira, gainera, laguntza-sisteman, balorazio-erakundeetako presentzian, arte-eskaintzan eta Emakunden jarraipen-atal bat sortzean —behatoki iraunkor moduko bat izango litzateke, emakumeek esparru horretan duten egoera aztertzeke— .

31. Elkarrekiko errespetu- eta egokitzapen-prozesuak behar dira eta gizarte-hezkuntza eta portaera kolektiboak dira garrantzitsuen. Ideia hori abiapuntu hartuta, bada, zenbait neurri lagungarriak izan daitezke **etorkinak** esparru honetan sozializatzeko: Kultura-zentroak eta -etxeak eta liburutegiak beren jaioterrietako Kultura- eta informazio-materialekin hornitzea; bertakoekin elkartzeko ekitaldietarako laguntzak ematea (munduko arrozak...); euskal hiztunen nahiz gaztelaniako hiztunen artean txertatzen laguntzea; euskal gizartea ezagutzeko egokitutako ikastaroak... Etorkinen jaioterrietako artistak erakusketetarako edo ekitaldietarako gonbidatzea elkartzeko eta norbere buruarekiko estimazioa handitzeko aukera izan daiteke. Diru-laguntzak emateko deialdiak nazionalizatu diren eta sormen-gaitasuna duten etorkinei ere ireki behar zaizkie.

d) Irisgarritasuna

32. **Irisgarritasunaren aroan**, ekimen ona da eLiburutegia abian jartzea, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoan izena emandako laguntzako eduki digitalen (streaming bidez, ordenagailuan zein gailu mugikorretan) maileguen bidez irakurketa sustatzen duen plataforma. Halaber, KEB egitekoa den Publikoen Garapenari buruzko Txostenak estrategia integral bat eta neurri konbinatuak definitzea sustatuko du; hartara, parte-hartzea eta kultura-eskaera aktibatuko egingo dira.

Esparru digitalean belaunaldi-eten bat hauteman izanak iradokitzen du teknologia berriak erabiltzea barik (dagoneko ezarriak baitira), haien alde dinamikoenak, alegia erabilera berriak, erabiltzea behar dela erraztu. Horri esker, esate baterako, gurasoek sakonago parte hartuko lukete adin txikiko beren seme-alaben kultura-sozializazioan, eta irakasleek beren ikasleenean. Interesgarria litzateke tokiko ikastaroak eta tailerrak egitea, guraso gazteei eta adin ertainekoei zuzenduak.

33. Erakundeek koordinazioko eta sare lanerako politikak egiten dituzte **ondarea** balioztatzeke eta gizartean erabiltzeko, eta inguru digitalak aukera ematen die politikari horiei Kultura-eskaintza garrantzitsu horri bere etekin osoa ateratzeko. Azken urteetan egindako ibilbidea dinamizatzeko eta balioztatzeke sormen-politikekin jarraitzea bultzatzea besterik ez dugu.

34. Euskadin, hiriburuetan zein herrietan, auzo-etxe, Kultur-etxe eta **ekipamenduen** (liburutegiak, musika-eskolak) sare zabal eta ondo hornitua dugu. Aldiz, ezberdintasun handiak daude programazioek publikoak erakartzeko duten dinamismoan eta ahalmenean.

Zenbait gai zehaztu behar dira lurralde bakoitzean: programazio erregularren eta ekipamenduen erabileraren defizitak hautematea; kudeatzaileei eskaera berrietarako aholkularitza ematea, beren kualifikazioa hobetzeko eta, hala, zentroak dinamizatzeko denbora-helburuak eta tresnak zehazteko, herritarrei aukera emanda autokudeaketa-espazioen bitartez horien parte aktibo izateko; komunikazio-tresna berrietako eta kultura digitaleko prestakuntza-maila hobetzea, publiko gazteekiko harremanetarako.

Tokiko Agenda 21 ezarri ez zuten udalerrietan ezartzeak edo ezarri zutenetan beste ikuspegi batetik berriro heltzeak aukera emango luke defizitak hautemateko eta gizartea aktibatzeako protokolo bat izateko.

35. **Urritasunen** bat dutenek kulturarako eskubidea murriztua izan ohi dute. Ez dugu diagnostikorik urritasunen bat dutenek Kultura-eskaintza (ikus-entzunezkoa, idatzizkoa, ikuskizunak, eta abar) eskuratzeko zer aukera dituzten aztertzen duenik. Halakorik dugunean, gaitasun hori handitzeko neurriak proposa genitzake. Horren barruan sartzan dira medietako azpтитuluak edo soinu dualak.

36. Euskal etxeetara heltzen den **komunikazio-sistema** ez dator bat kultura-, politika-, gizarte- eta ekonomia-eraikuntzan diharduen herrialde baten kultura-, informazio- eta komunikazio-**beharrekin**; aitzitik, hein handi batean, kanpoko eredu jarraitzen die —EiTB eta tokiko zenbait irrati- eta telebista-operadore izan ezik—, eta herritarren gehiengoek erabakitako inkulturazio-prozesuak laguntzea baino akulturizagarriagoak dira. Garrantzitsua da euskal komunikazio-sistemaren —tokiko LTD, FMak, zibermediak, prentsa...— erregulazioen atzerapena hautematea, eta Kultura-betebeharrak beren gain hartu zituztenen jarraipena egitea.

37. **EiTBren** rola funtsezkoa izan da azken 30 urteotan informazioa, euskal kultura eta ikus-entzunezkoen sektorea garatzeko. Zenbait eremutan, hobe daiteke, zerbitzu publikoko misioak sakontzearen eta eguneratzearen bidez: euskara sustatzea, arreta berezia jarrita ETB1en gizarte-lekuari eta ETB2n duen presentziari; gehiago inplikatzeko ikus-entzunezko sektore propioan; eta arreta berezia jartzeko Kultura-programazioari. Mota guztietako edukiak sortzeko sorkuntza- eta hezkuntza-arloetako taldeekin lan egiteak aniztasuna areagotuko luke.

EiTBk aukera handia du parez pare: misioak eta egitura aro digitalera egokitzeko eta komunikazio-talde oso gisa eratzeko; hartara, sareko aukerak baliatuko ditu eta bere programak birdefinitu, eta erreferentziako informazio-gune oso bilakatuko da, idatzizko, soinu bidezko eta ikus-entzunezko albisteen agentzia-funtzioa barne. Horretarako, baina, ez litzateke nahikoa izango lege bat egitea —hiruzpalau urte beharko litzuzke gutxienez—; aitzitik, plan estrategiko berri bat definitu beharko litzakete, kontratu-programekin (hala nola 2016an sinatutakoa) jarraitu eta ikus-entzunezko sektorearekin eta webeko enprekin hitzarmenak sinatu, hartara ziurtasunak sortzeko.

Bide horretan, EiTB taldeak medioak bateratu beharko ditu (multimedia) eta euskarri bakoitzaren espresio-abantailei egokitutako edukiak partekatu beharko ditu. Gainera, erakunde- eta erredakzio-egiturek sarbide-gailuei eta hainbat gailuz hornituta dauden erabiltzaileen ohituren denbora-sekuentziei egokitutako edukiak eskaini beharko dituzte.

38. Aztertu behar da EAEk zer arau-espazio dituen **internauten eskubideak eta jardunbide digitala** gauzatzeko, jakinda estatuaren espazioak ere ez direla nahikoak mundu-mailako erregulazioa ozen eskatzen duen esparru baterako. Zuzenean esku hartzeko espazioak izango dira administrazioek zerbitzu digitalean egiten dutena, dela e-administrazioan, dela zerbitzu finalistetan edozein eremu publikotan; gizarte zibila sareetan, espazio partekatuetan eta laborategietan hedatu eta aritzearen inguruan antolatzea; kultura digitalaren ekimenak laguntzeko sistemetatik bultzatzea; eta

internauten eskubideen kontzientzia antolatua hartzea, komunitatean diharduten zerbitzuetan errespetuzko autoerregulazio-baldintzen mosaikoa definitzeko.

e) Zentraltasuna, gobernantza eta parte-hartzea

39. **Kultura- eta komunikazio-politikaren zentraltasunak** zera eskatzen du: batetik, kulturari lotutako erakunde-arloak garrantzi handiagoa izatea, hiru erakunde-mailatan; eta, bestetik, arlo ez espezifiko guztietan, kulturarekin konprometitzea, gaitasun kolektibotzat ulertuta. Gobernantzak erakundeen heldutasun demokratikoa islatuko luke, eta parte-hartzeak gizarte-ekimena bultzatzearen aldeko apustua.
40. Eusko Jaurlaritzako eta aldundietako **sail eta departamendu arteko koordinazioaren** eta erakunde arteko koordinazioaren arloan, eztabaidatutako eta partekatutako ardatz estrategikoei jarraiki egiten den guztia ongi etorria izango da. Horren ildotik, oso erabilgarria izango litzateke zenbait elementu nagusi zehaztea, kultura epe ertain eta luzera garatzeko, dela herrialderako, dela lurralde bakoitzerako.
41. Gobernantzari dagokionez, kostu publikoak aurrezteko gobernu-sailak trinkotzea ekarri zuen ezohiko krisialdia amaitu ondoren, komeniko litzateke **Kulturako sail espezifikoaren** eredura bueltatzea, alegia, Kultura Saila Hezkuntza Sailari lotuta ez egotea, Euskadiko kulturarako eremu estrategiko lehenetsia izatea nahi badugu.
42. Gainera, inflexio-garaietan kulturaren tankerako gai sentikor bat zuzentzeko erabaki- eta adostasun-egiturak berritzeak **Arteen eta Kultura Industrien Euskal Institutua** proiektua berriro berrikustea eskatzen du, hain zuzen, orain dela bi legegintzaldi onartu ez zena. Sektorea erabakietan batera parte hartzeko logikan oinarritzen zen, betiere, azken hitza administrazioak zuela. Berriro pentsatu beharko litzakete, gobernu eta lurralde-mailako modalitate konfederala aintzat hartuta.
43. Bestalde, gizarte helduek gero eta gehiago aitortzen dute gizarte zibileko **taldeek beren buruak kudeatzeko** duten gaitasuna, erlazio-, partaidetza- eta deliberazio-demokraziaren parametroetan. Hain zuzen, tirabira gehiago azaleratzen dituzte, baina baita dinamismo gehiago ere detektatutako arazoei ematen zaien erantzunetan, eta borondateak bateratzen dituzten konpromiso gehiago ere. Interesgarria litzateke KEBk autokudeatutako Kultura-esperientzien, esate baterako, gizarte-fabrikak eta gaztetxeak jarraipena egitea eta aztertzea, zer ekarpen egiten duten eta zer-nola funtzionatzen duten ikusteko, bai eta erreferentziako Europako beste eredu batzuekin alderatzea ere.
44. Parte hartzeko eremu egokienak tokikoak direnez, **lurralde historikoen mailan**, diagnostikoak eta konpromisoak partekatu behar dira sortzaileen eta Kultura-enpresen elkarrekin; hartara, Kultura-pultsuari bultzada berria emango zaio, eta araudiak eta aurrekontuak egokitu egingo dira. Gobernuen mailan, txosten honen eta abian diren beste batzuen ekarpenarekin, Kulturaren Euskal Kontseiluak funtzio dinamizatzailea har dezake bere gain, zenbait orientabide eta neurri estrategiko gauzatzeko.